# KALITATE- ETA INGURUMEN-POLITIKA INTEGRATUA

Ebakigroup karbono-altzairuzko, altzairu herdoilgaitzezko eta aluminiozko piezen laser mozketa, plasma mozketa eta oximozketa, tolesketa, granailaketa, inprimaketa eta hariztaketa egiten duten enpresen talde bat da, eta, Kalitate eta Ingurumeneko arduradunek kalitate- eta ingurumen-sistema integratu bat ezarri dute Kudeatzailetzak eskatuta, honako bi arau hauek oinarri hartuta: batetik, UNE-EN-ISO 9001 («Kalitatea Kudeatzeko Sistemak. Betekizunak»), eta, bestetik, UNE-EN-ISO 14001 («Ingurumena Kudeatzeko Sistemak. Betekizunak eta erabilerarako orientazioa»).

**Gure BEZEROEI produktu onena eskaini nahi diegu, bai eta ingurumena babestu ere.**

Gure konpainiaren etorkizuna ziurtatu eta balioa eransteko, gure bezeroek **KONFIANTZAZKO HORNITZAILETZAT** izan gaitzatela nahi dugu.

**Helburu hori lortzeko, konpromiso hauek hartzen ditugu:**

- *Aipatu PRODUKTUA gure bezeroen beharraren arabera eskaintzea.*
- *Gure BEZEROEI PREZIORIK eta ENTREGA-EPERIK onenak eskaintzea.*
- *Gure jarduera, produktu eta zerbitzuei aplika dakiekeen indarreko INGURUMEN-LEGEDIA betetzea, bai eta produktu bakoitzaren indarreko ARAUDIA ere.*
- *INGURUMENA BABESTEA eta kutsadura eta ingurumenari negatiboki eragingo dioten perturbazioak prebenitzea, murriztea eta, ahal den neurrian, ezabatzea.*
- *Gure kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemaren efikazia ETENGABE HOBEZEA.*
- ***KALITATE- ETA INGURUMEN-HELBURUAK** finkatzea.*
- *Langileak etengabe prestatzea eta gaitzea*, kalitate arloko tresna gisa.
- *Merkatuko bilakaerara/teknologietara egokitzea.*

*Politika hau kalitate- eta ingurumen-helburuak zehaztu eta berrikusteko erreferentzia-esparrua da. ZUZENDARITZAK eta KALITATEKO eta INGURUMENEKO sailek ziurtatuko dute helburuok **BETETZEN** direla, baita haien **JARRAIPENA EGITEN** dela ere.*

Zuzendaritzak sistemaren berrikuspenetan berrikusiko du politika hau.

ZUZENDARIAREN SINADURA
DATA: 2017/09/29